

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4753

219/2022 EBAZPENA, irailaren 22koa, Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Juan Larumbe Ochoa jauna izendatzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Osasun Mentaleko Sareko Bitarteko Egituretako Atal Sanitarioko buru, aldi baterako, lau urte luzagarri.

Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearen maiatzaren 12ko 133/2022 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen Arabako Osasun Mentaleko Bitarteko Egituretako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko uztailaren 13ko EHAA 135. zk. eta 2022ko uztailaren 23ko BOE 176. zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Juan Larumbe Ochoa jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hura izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Osasun Mentaleko Sareko Bitarteko Egituretako Atal Sanitarioko buru.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28.artikuluaren hirugarren arau komunarekin, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Juan Larumbe Ochoa jauna izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Osasun Mentaleko Sareko Bitarteko Egituretako Atal Sanitarioko buru aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, eta luzatzeko aukera egongo da, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluen hirugarren arau komunean ezarritakoarekin bat etorri. Izendapenak 2022ko urriaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ezpada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldeztu aurretik kontrako espediente dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluen 6. apartatuan aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 22a.

Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentea,
MIREN EGUZKIÑE DE MIGUEL AGUIRRE.